

Kontxi
A112

BERGARAKO UDALA	
AYUNTAMIENTO DE BERGARA	
2015 URR 19	
SARRERA	4262 IRTEERA
ENTRADA	SALIDA
ORDUA/HORA	2012ko ekainean ireki zen

Debagoieneko Ospitalea, Erresonantzia Magnetikoa.

Debagoieneko ospitale berria, Debagoieneko herritarrei osasun-arretan eta zerbitzuan hobekuntzak eskaintzeko helburuarekin. Espazioan irabaziz, ekipamenduetan onurak ezartzeko egitasmoarekin,espezialitate berriak ezartzeko xedearekin, eta abar.

Gaur da eguna, ospitale berriko espazioen erabilera, optimizazioa eta aprobetxamendua ez dela espero zen bestekoa, eta oraindik asko egin daitekeela ospitalearen errendimendu soziala areagotzeko, dagoeneko eskura ditugun espazio berri eta egokituei etekina ateraz eta probestuz.

Zentzu horretan, ulertezina da, esaterako, erresonantzia magnetikoak kamioi batetan egin beharra; horrek izan ditzakeen ondorio guziekin. Bereziki kalitatean eta herritarrei eman beharreko zerbitzuan. Kontutan izatekoa da ere, Osasun batzordean Arrasateko ospitaleko langileen ordezkariak esandakoak, alegia,ospitalean ingesatuta dauden pertsonak ospitaletik atera behar izaten dituztela kamioira joateko erresonantziak egin ahal izateko. Horrek dituen ondorio guziekin, bai gaixoarentzako, baita langileentzako eta baita Osakidetzaarentzat berarentzat ere, bere izen eta irudian.

Agian, trantsizio fase batean, uler zitekeen, espaziorik ez zegoenean bestelako bitartekoak, kamioiak kasu, erabiltzea aipaturiko froga-diagnostikoak egiteko. Baina ulergaitza egiten da, ospitale berri bat egin ostean, aipaturiko bitarteko osagarriak erabiltzea. Gogoratu, Urola Goierriko erakunde sanitario integratuko Zumarragako ospitalean egoera zuzendu dela eta unitate berria jarri dela abian erresonantzia magnetikoak egiteko kamioia baztertuz.

Horregatik guztiarengatik,

Bergarako udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio prozesu bat abian ipini dezala hiru hilabeteren epean Debagoienako ospitalean erresonantzia magnetikoetarako unitate bat irekitzeko, unitate horrek gaur egun itunpeko enpresa batek kamioi baten bidez eskaintzen duen zerbitzu ibiltaria ordezkatu dezan, eta partida bat sartu dezala horretarako 2016ko aurrekontuetan. Halaber, Bergarako udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Debagoieneko biztanleei eskaintzen zaien osasun-arreta eta irisgarritasuna hobetzeko behar diren inbertsioak egin ditzala.

Opuntia Barrios